

AMARAUNA - ZERUEN TRUKAKETA EKIMENA

# Berlingo zeruaren irudia daraman hegazkina ikusiko dugu Gernikan

2019/09/07

Irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean ikusiko dugu hegazkina Bizkaiko zerualdean. Apirilean, bonbardaketaren urtemugan, beste hegazkin batek Gernikako zeruaren irudia erakutsi zuen Berlinen.



15:56 min


Gernikako zerua irudikatzen duen pankarta



-15:56

 Partekatu 0

## AUDIOAK (1)

 Berlingo zeruaren irudia daraman hegazkina ikusiko dugu Gernikan

Gernikako Astra kultur zentroan prest dute Berlingo zerua irudikatuko duen 100 metro karratuko pankarta erraldoia. Michael Klant alemaniar artistaren ekimena da; Kondor Legioko artillarietako baten, Gernika bonbardatu zuten Alemania naziko aire armadako soldadu baten semea da Klant. Gernika Gogoratuz erakundeak eta Lobak elkarteak ere hartu dute parte ekimenean. Bonbardaketa jasan zuten gernikarren bilobak batzen ditu Lobak elkarteak.